

LANDAREAREN ATALAK

1.- Zeintzuk dira landarearen atalak?

Orriak, nerbioak eta pezioloa.
Adarrak, hostoak eta zurtoina.
Sustraia, zurtoina eta hostoak.

2.-Sustraia lur azpian hazten da.

EGIA GEZURRA

3.-Ze atalak xurgatzen ditu ura eta gatz mineralak?

Hostoak Zurtoinak Sustraiak

4.-Ze atalak dauka landarea lurrian finkatzeko funtzioa?

Zurtoinak Sustraiak Hostoak

5.-Zurtoinak landarearen gainerako atalei eusten die.

EGIA GEZURRA

6.- Zenbat zurtoin mota daude?

1 2 3

7.- Zurtoin belarkarak lodiak eta gogorrak dira.

EGIA GEZURRA

8.- Zurtoin zurkarak

meheak, bigunak, malguak eta berdeak izaten dira.
lodiak eta gogorrak dira.

9.- Zuhaitzek enborra dute.

EGIA GEZURRA

10.-Zuhaixken enborra laburragoa da.

EGIA GEZURRA

11.- Hostoen atalak

orria, sustraia, ertza eta pezioloa dira.
sustraia, zurtoina eta hostoa dira.
orria, nerbioak, ertza eta pezioloa dira.

12.- Orriaren goiko aldea gainaldea da, eta behekoa, azpialdea.

EGIA GEZURRA

13.- Nerbioen bidez

substantziak eta elikagaiak banatzen dira.
substantziak eta elikagaiak xurgatzen dira.

14.- Pezioloa hostoa eta zurtoina lotzen dituen atala da.

EGIA GEZURRA

15.- Garai batean hosto guztiak galtzen dituzten zuhaitzak

zuhaitz hostoiraunkorrak dira.
zuhaitz hostoerorkorrak dira.

16.- Zurtoin motaren arabera, belarrak, zuhaixkak eta zuhaitzak bereizten ditugu.

EGIA GEZURRA